



EGKren webgune berria eta albiste buletina sortu, .eus-era migrazioa egin eta sare sozialen kudeaketan laguntzeko betebeharrak

EGIN BEHARREKO LANA

Jarraian, EGKren lan taldearekin batera egin behar diren lanak zehazten dira, webgune berria sortzeko proiektuan eta sare sozialen kudeaketan.

PROIEKTUAREN HASIERAKO FASEA (2015eko udazkena, gutxi gorabehera)

- EGKren oraingo webgunearen eta Piztu! buletinaren bisiten estatistika eta indargune eta ahulguneen analisia (Webmaster Tools, Google Analytics eta antzeko tresnen bitartez).
- EGKren hedabide sozialen gaur egungo erabileraren egoeraren analisia: Facebook, Twitter, Instagram eta Youtube.

PROIEKTUAREN GARAPENAREN FASEA (2016ko negua, gutxi gorabehera)

- EGKren webgune berriaren garapena (euskaraz eta gaztelaniaz eta, aurreikusten denez, ingelesa eta frantseseko atal txikiekin) beharrezkoak diren tresnak erabiliz eta internet inguruan dauden araudiak errespetatuz (pribatutasunaren babesa, cookiak...).
- Eduki eta artxiboen kudeaketa egiteko euskarriaren garapena, baita EGKren lan taldeak honen erabilpena egiteko formazioa ere.
- Piztu! albiste buletinaren berritzea.
- EGKren hedabide sozialen hobekuntzen ezarpena eta tresna berrien erabilera.

PROIEKTUAREN AZKEN FASEA (2016ko udaberriaren hasiera, gutxi gorabehera)

- EGKren webgune berriaren abiaraztea .eus domeinuan.
- Bilatzaileetan posizionatzea mantentzea .org-etik .eus-era migrazioa egitean.
- Helbide elektronikoen migrazioa .eus-era eta beharrezkoak diren moldaketa teknikoak.
- Webgune berria eta hedabide sozialen erabilera berriarekin lotura duten estatistiken jarraipena eta monitorizazioa.
- EGKren hedabide sozialen erabilera lagungarria izango den estilo liburuaren sorreran laguntzea.
- Ebaluazioa eta proiektuaren azken analisia.

Gainera, aukeratzen den enpresa mantenimendu lanetan eta babes teknikoa ematen jarraipena izango du EGKrekin adosten diren baldintzetan.



BALORAZIOA

Aurkezten diren proposamenen artean, ezaugarri hauek baloratuko dira:

- Atal teknikoa, planteatzen den proiektua nola egingo den azalduz: zer, nola, ze langileekin, noiz...
- Aurretik egindako antzeko lanak.
- EGKren ibilbidearen ezagutza.
- Aurrekontua.

Aurkezten diren pertsona edo enpresen inguruan, ezaugarri hauek baloratuko dira:

- Pertsona gazteez osaturiko enpresa izatea.
- Bai gaztelaniaz bai euskaraz primeran lan egiteko gaitasuna.
- EGKren kidea den entitatea izatea.
- Ekintza honetatik sor daitezkeen etekin ekonomikoa elkartera itzultzea.

EPEAK

Interesa duten pertsonak edo enpresek bere proposamena aurkeztu behar dute **2015eko irailaren 15eko eguerdiko 12.00ak baino lehen "EGK-ko webgunea"** gaiarekin komunika@egk.org helbidera bidaliz. Jarraian, proiektu guztiak aztertuko dira eta aukeratuak direnak deituak izan daitezke aurrez aurreko defentsa egitera.

Eskaintza guztiak ezagutzean, EGKren Batzorde Iraunkorrek eta lan taldeak erabaki bat hartuko du eta aukeratua denari eta ez direnei jakinaraziko zaie.

Informazio gehiago jakiteko, 943 429767 telefonora deitu edo komunika@egk.org helbidera idatzi (Iñaki Goikoetxea, EGKren komunikazio teknikaria).*

** Deialdi hau opor garaian egiten denez, abuztuaren 24ra arte zalantzak argitzeko bidea emaila izatea eskatzen da. Hemendik ere, egun batzuk beharko dira, baina jasotzen diren guztiak lehenago edo beranduago erantzungo dira. Abuztuaren 24tik aurrera, telefonoa berriro erabilgarria egongo da.*